



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIAN EMAKUMEEN
AURKAKO INDARKERIAREN
GAINEKO ERAKUNDE
JARDUKETAREN INGURUAN
**HOBETZEKO GOMENDIO ETA
PROPOSAMENEN**
III. TXOSTENA



BIZKAIAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN GAINEKO ERAKUNDE JARDUKETAREN INGURUAN HOBETZEKO GOMENDIO ETA PROPOSAMENEN III. TXOSTENA	AURKEZPENA	3
	BGIBko ADIERAZLEEN LANTALDEA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEAK	4
	METODOLOGIA	5
	TXOSTENA EGITEKO PROZESUAREN LABURPENA	7
	PREBENTZIOAREN GAINEKO GOMENDIOAK	8
	Genero-ikuspegjaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak	9
	Emakumeen ahalduntzea	12
	Sentsibilizazioa eta informazioa	14
	Hezkuntza	15
	ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK	16
	Datuen erregistroa eta jarraipena	17
	Ikerketa eta hedapena	21
	ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK	23
	Arreta-zerbitzuak	24
	Profesionalen prestakuntza	36
	Erakundeen Koordinazioa	40
Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko lan-taldea		

© BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

L.G.: BI-132-2017



AURKEZPENA

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren -BGIB- oinarritzko helburuetako bat hauxe da: zerbitzuen eta prestazioen eskaintza hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean eragina dutenak.

Gomendio-txosten hau helburu horri erantzunez egin den hirugarrena da. Aurreko edizioen ildotik, dokumentu berri honek Behatoki Lantaldea osatzen duten erakundeen -EAEko administrazio publikoko hiru mailatakoak nahiz elkarten eremukoak- ikuspegia eta hausnarketak jaso ditu, prebentzio- eta arreta-mailan antzeman diren hobetu daitezkeen alderdien inguruan. Ondorioztatutako gomendioak udal-, foru- eta erkidego-esparruetara zuzenduta daude, eta irismen orokorra nahiz sektoreakoa dute.

Edizio honek 170 gomendio baino gehiago bildu ditu, eta aurretik burutu ziren gomendioak egiteko bi faseei jarraikiz egin da edizio honen prozesua. 2016. urtean bereziki hartu da erreferentziatzat Europako eta estatu-mailako azken araudia, bai eta zerbitzu-kalitateko nazioarteko estandarrak ere. Hori dela eta, funtsezko hiru gai hauek izan ditu ardatz: emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urrapentzat jotzea eta erakunde publikoek horren aurrean jarduketa egokia zuzendu behar dutela aintzatestea; adingabeak genero-indarkeriako biktima gisa hartzea; eta zerbitzuen plangintzan eta prestazioan, dibertsitatea aintzat hartzen duen ikuspegia gehitzea, behar bereziak dituzten biktimei modu egokian erantzutea ahalbidetzen duena.

Osasun eta hezkuntza alorretan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailek lehen aldiz hartu dute parte prozesu honetan. Orain dela gutxi egin zuten bat Behatokiarekin eta parte-hartze maila handia izan dute taldearen jardueren garapenean; horrek taldearen ahalmena handitu du, zalantzarik ez. Halaber, profesionalen eta kanpo-erakundeen laguntzari esker, horiek jarduten duten arloetako ikuspegi zehatza ezagutu da.

Goraipatu beharra dago Lantaldearen jarduna, gomendioak egiteko lan horretan ondo lan egin baitute. Era berean bereziki azpimarratu beharra dago Lantaldeko kideek taldeko lanetan egin duten esfortzua eta horiei eskaini dieten denbora. Horrek agerian jartzen du Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiarekiko duten konpromiso handia, eta horri esker aurkeztu ahal dugu, hain zuzen, Hirugarren Gomendio Txostena. Espero dugu txostenak gakoak ematea eta baliagarria gertatzea erakundeek gure inguruko emakumeen aurkako indarkeriari hobeto erantzun diezaioten, eta lurralde-esparrura hedatu dadin.

Teresa Laespada Martínez. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren lehendakaria



BEHATOKIKO LANTALDEA

Txosten hau egiteko prozesuan honako hauek hartu dute parte, Behatokiko Lantaldea osatzen duten erakundeen ordezkarietan:

KOORDINAZIOA

Berta Díaz Arbesú

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Salla
(Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia)

MAHAIKIDEAK

Cristina Sarduy eta **Aitziber Goitia**

Enplegua, Gizarte
Inklusioa eta
Berdintasuna
Sustatzeko Bizkaiko
Foru Aldundiko Salla
(Berdintasunerako
Zuzendaritza Nagusia)

Socorro Álvarez eta **Irene Lauzirika**

Emakunde -
Emakumearen Euskal
Erakundea

Josu Ibarretxe

Eusko Jaurlaritzako
Segurtasun Salla

Carmelo Santoyo

Eusko Jaurlaritzako
Herri Administrazio eta
Justizia Salla

Ana Aldekoa

Eusko Jaurlaritzako
Enplegu eta Gizarte
Politiketako Salla

Ainhoa Perea eta **María Eugenia Carranza**

Eusko Jaurlaritzako
Osasun Salla

Marisol Antolín

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura
Salla

Begoña Fernández

Ermuko Udala - EUDEL

Ixone Badiola

Gernika-Lumoko Udala
- EUDEL

Mireia Espiau

EUDEL

Marta Dolado eta **Edurne Fernández**

Laguntza
Psikosozialerako
AUZOLAN Modulua

arnele Ozaita eta **Aintzane Riancho**

ARGITAN
Emakumeentzako
Aholku Etxea

KANPO-LANKIDETZA

Gomendioak egiteko prozesuan parte hartu dute une oro honako hauek:

Estibalitz Anitua

Uribe Kostako Zerbitzu
Mankomunitatea

Izaskun Jiménez eta **M^a Carmen Azcona**

FEKLOOR - Gutxitasun
Fisikoa edo Organikoa
duten Pertsonen
Bizkaiko Federazio
Koordinatzailea
Gainera, une zehatzetan
hartu dute parte
Ainhoa Güemes-ek
(LANBIDE) eta **Nagore
Otazua-k** (Eusko
Jaurlaritzako Enplegu
eta Gizarte Politiketako
Saileko Etxebizitza
Zuzendaritza).

IDAZKARITZA TEKNIKOAK

INFOPOLIS 2000, S.L.



METODOLOGIA

BGIBen III. Gomendio Txostena 2013-2016 aldiaren amaieran egin da. Horren aurrekariak dira aurreko lau urteko jardueretan egindako bi prozesuak: 2004-2008koa eta 2009-2012koa.

Oraingo prozesua garatzeko, Lantaldeak zortzi bilera presentzial egin ditu 2016ko apirilaren eta abenduaren bitartean. Bilera guztiak monografikoak izan dira, lehenengoa eta azkenengoa salbu.

Hirugarren Gomendio Txostena egiteko, erreferentzia gisa hartu da aurreko edizioa. Bestalde, hausnarketa-ardatz gisa eutsi zaie prebentzioaren, errealitatearen ezagutzaren eta arretaren alorrei; horietako batzuetan alderdi berriak gehitu dira.

Aurreko fasean bezala, ikuspegi orokorretik ekin zaio prozesuari, eta, horrela, barne hartu ditu taldeak landu beharrezkotzat jo dituen gai anitzak. Hau da, batez ere hobetzeko edo aldatzeko beharrezkoak adieraziko duen ikuspegi eman da, nahiz eta horrek garapen-proposamenen zehaztasuna zailtzen duen. Taldearen ustez, ikuspegi horri esker erakunde partaideen ezagutza eta esperientzia hobeto aprobetxatzen dira; bai eta lantalde gisa aurretik egin duten ekoizpena ere; izan ere, horien sinergia hazi da azken hamarkadan elkarrekin egindako jarduerari esker, Lantaldearen osaeran izan diren aldaketak gorabehera.

Hausnarketa-prozesua jorrazteko informazioak honako baliabide hauek hartu ditu erreferente gisa:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeek jokabidea hobetzeko gomendioen eta hobetzeko proposamenen II. txostena (2009-2012 aldian). BGIBek egina.
- Europako eta estatu-mailako esparruan gaur egun dagoen legeria emakumeen aurkako indarkeriako eta berdintasuneko alorrean.
- Biktimen arretarako baliabideei buruzko araudia.
- Dokumentazio espezializatua; bereziki, Indarkeria jasan duten Emakume eta Neskontzako Oinarrizko Zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Munduko Programakoa. Emakundek - Emakumearen Euskal Erakundeak programa horretan hartzen du parte.



METODOLOGIA

- EAEn indarkeriaren biktima izan diren emakumeen arretarako baliabideen ebaluazio-txostenak. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak eginak.
- BGIBeri informazioa ematen dioten udalerrietako eta mankomunitateetako profesionalen ikuspegia, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden zerbitzuen eta esperientzia eraginkorren egoeraren inguruan. BGIB Buletinean jasotzea ('Sarean' atalean).
- Taldearen aurretiazko esperientzia, BGIBeko Idazkaritza Teknikoaren erregistroan eta bilera-aktetan islatuta dagoena.

Lana fase hauen arabera egin da:


- BGIBeko Idazkaritza Teknikoak eta taldeko koordinatzaileak osatutako idazketa-taldea eratzea, txostenaren atal bakoitzari buruzko oinarri-agiriak egiteko helburuaz, agiriok lan-saio bateratuetan gaiak aztertzeko orduan abiapuntu izan daitezten.
- Lantaldeak bilerak egitea, idazketa-taldeak planteatutako hasierako proposamena eztabaidatze aldera.
- Agiriak aldatzea, taldeko eztabaidaren emaitza sartzeko.
- Agiriak erakunde partaideei bidaltzea berrikus ditzaten, alegazio-epearekin.
- Aurkeztutako alegazioak erregistratzea eta taldeari jakinaraztea, lan-saioan.
- Alegazioak onartzea / ukatzea.
- Azken agiriak adostasunez onartzea.
- Azken txostena prestatzea.

BGIBen Hirugarren Gomendio Txostena osatzen duten gomendioek zeharka jaso dute Fekooren ikuspuntua dibertsitate funtzionalaren alorrean.

Azkenik, adierazi beharra dago, II. Gomendio Txostena egiteko prozesuaren zehaztasuna dela-eta, egokitzen jo dela oraingo edizioan zenbait gomendiori eustea, besteak beste, zeinen inguruan ekinbiderik ezagutu ez den eta zeinen planteamendua indarrean dagoen. Gomendio horiei dagokienez, hobe daitezkeen alderdiak berrikusi dira.



III. GOMENDIO TXOSTENA EGITEKO PROZESUAREN LABURPENA





PREBENTZIOAREN GAINEKO GOMENDIOAK

SARRERA

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasun sozialaren muturreko sintoma da. Hori dela eta, mota horretako indarkeria lehen mailan prebenitzeko ezinbestekoa da berau ezabatzeko jarduerak garatzea, gizarte-egitura, baloreak eta ohiturak eta harreman-ereduak eraldatzeko asmoz. Aldaketa horretarako funtsezkoak dira honako hauek: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten politikak; gizarte kontzientziatzea emakumeen eskubideak sustatzeko; eta neurriak hartzea, emakumeen jabetasuna sustatzen eta euren partaidetza sozial eta politikoa eragiten dutenak.

Abiapuntu gisa, azpimarratu da giza eskubideak babesteko esparru orokorraren barruan izan behar direla berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko politikak. Halaber, nabarmendu da indarkeria mota horren biktima diren umeen babesa bermatzeko beharra hiru ikuspegi kontuan hartzen dituzten politiken bidez, giza eskubideena, haurtzaroarena eta generoarena, hain zuzen ere.

Bestalde, berdintasunerako politiken sorkuntzan, aplikazioan, jarraitpenean eta ebaluzioan eragiten du honako hauek egoteak eta mantentzeak: erakundeen barruko berdintasuna sustatzeko egiturak -bai eta administrazioko hierarkian duten kokapena ere-, ekintza zehatzak eta horiek garatzeko baliabideak jaso eta adosten dituzten planak, eta langile adituak eta iraukorrak, neurriak koordinatu eta ezartzeko.

Emakumeen partaidetza sozial eta politikoa ezinbestekoa da beren interesak eta beharrezkoak kontuan har daitezkeen politika publikoen edukian eta ezartzen diren jarduketaren lehentasunetan. Elkartegintza sustatzea eta indartzea asmo horren bermea da, eta erakundeen babesa beharrezkoa du baliabideak esleitu, partaidetza-bideak gaitu eta emakume-elkarrekin ekarpenak eta ezagutza baloratzeko.



PREBENTZIOAREN GAINEN GOMENDIOAK

- a. **Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak**
- b. Emakumeen ahalduntzea
- c. Sentsibilizazioa eta informazioa
- d. Hezkuntza

Ikuspegi hori abiapuntutzat hartuta, Behatokiko Lantaldeak aditzera eman du oso garrantzitsua dela berdintasunerako udal-politiken kudeaketa-esparrua indartzeko neurriak hartzea. Ildo horretan aurkeztu ditu lehenengo epigrafean jasotako gomendioak (jarraian adieraziko dira). Bigarrenik, taldeak adierazi du emakumeen jabeakuntza indartzeak berebiziko garrantzia duela gizarte-aldaketarako estrategia gisa. Kapitulu horretako gomendioen hirugarren kategoria sentsibilizazio-eta informazio-alorreko jarduketei lotuta dago. Amaitzeko, laugarren atalean hezkuntza-alorrerako proposamenak jaso dira, zehazki, esparru formalean zein ez-formalean eta aisialdi-espazioetan genero-ikuspegia gehitzeari eta sustatzeari buruzkoak.

A. GENERO-IKUSPEGIAREN ZEHARKAKOTASUNA. BERDINTASUN-POLITIKAK

Berdintasuna garatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko egiturak planifikatu eta indartzeko gomendioak

Erakunde guztiei zuzenduta

1. Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko politikak giza eskubideak defendatzeko esparru orokorrean kokatzea.
2. Genero-indarkeriaren eraginpean dauden umeen babesa ziurtatzea, ikuspegi hirukoitza duten politiken bidez: giza eskubideak, haurtzaroa eta generoa.
3. Desgaitasunaren ikuspegia zeharkako egitea berdintasuneko eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko politiken antolamenduan, Europan desgaitasuna duten emakumeen I. eta II. adieraz-



PREBENTZIOAREN GAINEKO GOMENDIOAK

a. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak

b. Emakumeen ahalduntzea

c. Sentsibilizazioa eta
informazioa

d. Hezkuntza

penean hurrenez hurren adierazitako definizioa eta urratsak kontuan hartuta¹.

4. Genero-ikuspegia duten erakunde-aurrekontuak antolatzeko tresnak prestatzea eta horiek aplikatzen direla ziurtatzea.
5. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egiteko planak eta koordinazio-protokoloak egitea eta horiek prebentzio- eta arreta-arloak barne hartzea, bai eta ebaluazio-adierazleak ere, eta aplikazioa eraginkorra izateko beharrezkoak diren baliabideak edukitzea.
6. Gizonak berdintasun-politiketan aktiboki sartzeko estrategiak diseinatzea, eremu honetan lanean ari diren gizonen taldeekin koordinazioan.

Udalerrri eta mankomunitateei bereziki zuzenduta

7. Tokiko administrazioaren barruan berdintasun-agentearen irudia edo berdintasun-politikak ezartzeko eta garatzeko zereginak dituzten langile espezializatuen irudia erakundetzea.
8. Udaletako berdintasun-arloak indartzea, langile adituak eta baliabide ekonomikoak eskuragarri daudela bermatuz; eta, administrazio-egituraren barruan, maila altuagoen mendetasunean kokatzea, zeharkakotasunaren printzipioaren aplikazioarekin bat
9. Generoaren araberako eraginari buruzko aurretiko ebaluazioa egitea, bai arauetan, bai aurrekontu-programetan, eta udal-aurrekontuetan berdintasun-helburuak zeharkako egitea.

1. "Europar Batasuneko desgaitasunaren bat duten emakumeen adierazpena" eta "Europar Batasuneko desgaitasunaren bat duten emakume eta neskatuen eskubideei buruzko adierazpena".



PREBENTZIOAREN GAINEN GOMENDIOAK

a. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak

b. Emakumeen ahalduntzea

c. Sentsibilizazioa eta
informazioa

d. Hezkuntza

10. Kontratazio, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak sartzea.
11. Berdintasunari buruzko udal-ordenantzak egitea, kontuan hartuta Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sareak, Berdinsareak (EUDEL eta Emakunde), prestatutako “EAEko emakume eta gizonen berdintasunaren eremuko esparru-ordenantza”. Ordenantza bete den eta emaitzen zabalkundea ebaluatzea.
12. Genero-ikuspegia duten hiri-diagnostikoak egitea, emakumeek espazio publikoetan duten sarbidea eta moldaera mugatzen dituzten faktoreak identifikatzeko.
 - Azterketak egitean, udalerriko eta mankomunitateko emakumeen parte-hartzea izatea eta, horrela, aniztasun funtzionalaren ikuspegia ziurtatzea.
 - Ikasketak prebentziorako eta aldaketarako ikuspegitik planteatzea.
 - Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean eta arau subsidiarioetan diagnostikoaren ondoriozko urratsak edo gomendioak ezartzea.
13. Bizkaiko udalerrietan garatutako berdintasuneko tokiko politikak sustatzeko eta garatzeko sareetan parte hartzea, besteak beste, Berdinsarea eta Berdinbidean Bizkaia.
14. Tokian Tokiko Bizimoduan Gizonezkoen eta Emakumezkoen arteko Berdintasuna lortzeko Europako Gutuna sinatzea eta ezartzea.



PREBENTZIOAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak
- b. Emakumeen ahalduntzea**
- c. Sentsibilizazioa eta informazioa
- d. Hezkuntza

B. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeen gizarte- eta politika-partaidetza sustatzearekin eta elkarte-sarea indartu eta babestearekin lotutako gomendioak.

Erakunde guztiei zuzenduta

15. Udalaren Berdintasun Kontseiluetan edo bat datozen egituretan parte hartzen duten pertsona eta elkarteei genero-ikuspegian oinarritutako prestakuntza ematea.
16. Emakume politikariei ematen zaien laguntza finkatzea, horiek ahalduntzeko, besteak beste, Virginia Wolf Basqueskola esperientzia bezalako bidez.
17. Lurraldeko emakumeen elkarteek emakumeen aurka gauzatutako indarkeria-moten egoerak identifikatzeko eta egoera horietan dauden emakumeei laguntza konstruktiboa emateko duten gaitasuna indartzea, sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta laguntzarako eta informaziorako gidak eta materialak banatzearen bidez.
18. Lan-dinamika bateratuak (kanpainak, prestakuntza) egiteko eta sareak ezartzeko genero-ikuspegiarekin lan egiten duten eremu desberdinetako elkarten artean (feministak, soziokulturalak, aisialdikoak, laguntzakoak, kirolekoak) harremanak eta ekimenak sustatu edo indartzea.
19. Emakume guztiak foro eta elkarteetan parte har dezatela sustatzea, beren egoera edozein dela eta (migratzaileak, maila desberdinetako desgaitasunak...), laguntza-sareak ezar daitezzen sustatzeko.
20. Aniztasun funtzionala duten emakumeek emakumeen beren aurkako indarkeriaren biktimei zuzendutako prebentzio, arreta eta/



PREBENTZIOAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak
- b. Emakumeen ahalduntzea**
- c. Sentsibilizazioa eta informazioa
- d. Hezkuntza

edo erreparaziorako programak, zerbitzuak eta baliabideak diagnostikatzeko, planifikatzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko foroetan parte hartzen dutela ziurtatzea.

21. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen gizarte-aitorpena bideratzeko esperientziak diseinatzea eta abian jartzea.
22. Hainbat eremutako elkarteei eta, bereziki, emakumeen elkarteei, Begira Batzordearen berri ematea, bai eta haren funtzioen berri ere, batez ere herritarrek publizitatean eta komunikabideetan antzematen dituzten eduki sexistei buruz aurkezten dituzten keak direla eta. Halaber, keak jakinarazteko material (formularioa, kode deontologikoa...) eta prozeduren berri ematea.

Udalerrri eta mankomunitateei bereziki zuzenduta

23. Ahalduntze Eskolak martxan jartzea eta mantentzea, emakumeek udalerrian duten partaidetza sozial eta politikoa sustatu eta areagotzeko asmoz.
24. Tokiko politikan emakumeen eta emakume-elkarteen partaidetza eta mugimendu feminista sustatzeko bideak bultzatu eta indartzea, Berdintasun Kontseiluen edo horretarako sortutako egituren bidez
25. Udalerriko edo mankomunitateko emakumeek –eta batez ere premia bereziak dituzten kolektiboetakoek– eta tokiko erakundeek hiri-diagnostiko parte-hartzaileak prestatzen parte hartzen dutela bermatzea.
26. Emakumeen jabeakuntzarako auto-babes tailer feministak maiztasunez antolatzea; horien deialdia eta adin-tarte desberdinen arteko hedapena orientatzea, horrelako jardueretan adin guztietako emakumeek parte har dezaten, adina, aniztasuna... gorabehera.



PREBENTZIOAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak
- b. Emakumeen ahalduntzea
- c. Sentsibilizazioa eta informazioa**
- d. Hezkuntza

C. SENTSIBILIZAZIOA ETA INFORMAZIOA

Erakunde guztiei zuzenduta

- 27. Adin desberdinetako gizonak emakumeenganako indarkeriaren kontrako jardueretan inplikatzeko bultzada ematea, berariazko sentsibilizazio-kanpainak, tailerrak, hausnarketa-taldeak eta abar antolatuz.
- 28. Desgaitasunen bat duten emakumeen aurkako tratu txarren mo-
te, ahultasunari, hautemateari eta tratu txarren ondorioei buruz-
ko sentsibilizazio- eta informazio-kanpaina zehatzak garatzea, eta
kolektibo hori kanpaina horiek diseinatzeko gogoan hartzea.
- 29. Eskola- eta osasun-eremuetarako genero-indarkeriaren eragin-
pean haurrak eta nerabeak egotearen identifikazioari eta ondo-
rioari buruzko kanpaina zehatzak garatzea.
- 30. Landa-eremuan informazio-kanpainak garatzea eta, horretarako,
informazio eskuragarria eskaintzea, genero-indarkeria eta mota
desberdinak, bereziki, indarkeria psikologikoa ikusarazteko. Ha-
laber, arreta-baliabiderik hurbilenak azaltzeko informazioa.
- 31. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kanpainen eta em-
akumeen eta premia bereziak (aniztasun funtzionala, belaun-
di-aniztasuna, migratzaileak, aniztasun afektiboa eta sexuala...) dituzten neskatoen ikusgaitasuna zeharkako egitea
- 32. Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan erantzun publikoa ber-
matzea eta, horretarako, Berdinsarearen Indarkeriaren Batzorde
Teknikoak eginiko jarduketara publikoetarako Gomendioen Gidan
iradokitako urratsei jarraitzea.



PREBENTZIOAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak
- b. Emakumeen ahalduntzea
- c. Sentsibilizazioa eta informazioa
- d. Hezkuntza**

D. HEZKUNTZA

Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuan eta aisia-espazioetan genero-ikuspegia sartzeari eta sustatzeari buruzko gomendioak

Erakunde guztiei zuzenduta

- 33. Berdintasuna, hezkidetzak, erantzunkidetasuna sustatzen dituzten programa hezitzaileak mantendu eta indartzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko.
- 34. Hezkuntza afektiboko eta sexuarekiko programak eta eskubideak gartzea, ikastetxeetako curriculumen eta aisia-programen barruan.
- 35. Nerabeei eta gazteei zuzendutako programak ezartzea, indarkeria-egoeren aurrean horiek identifikatzeko, prebenitzeko eta jarduteko tresnak izan ditzaten, bai hezkuntza-espazio formaletan, bai ez-formaletan, bai eta jai- eta aisia-espazioetan ere, erreferente gisa Beldur Barik programa hartuta.
- 36. Haurren eta gazteen astialdiko hezkuntzaren eremuan lanean ari diren langileen prestakuntzan genero-ikuspegiaren integrazioan sakontzea.
- 37. Berdintasunaren inguruan garatu beharreko programa guztiak aniztasun funtzionala duten pertsonetara egokituta eta berentzat irisgarriak diren formatuetan egiten direla ziurtatzea, eta ezarpenaren helburu diren espazioek irisgarritasuna bermatzea.
- 38. Helduen Hezkuntzan genero-indarkeriaren integrazioa indartzea bi modalitateetan: aurrez aurre eta distantzian.

Udalerrri eta mankomunitateei zehatz zuzenduta

- 39. Gazteen udal-espazioek (Gazteleku, Gaztegunek...) genero-ikuspegia integratzen duen jarduera egokitu eta irisgarrien eskaintza eta emakume eta neskatuen eskubideei buruzko informazioa jasotzen duen materialen funtsa (bideoteka, fonoteka, jolasak...) izatea eta emakume eta gizonen artean berdintasunezko harremanak sustatzen direla bermatzea.



ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

SARRERA

Gomendioen kapitulu horretako lehen zatian, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko errealitatearen ezagutza hobetzeko gomendioei buruzkoan, batik bat, zerbitzu publikoetatik eskuratutako datuak bildu dira, hori Behatokiaren lanean funtsezko gaia baita. Datu horiei esker zenbatetsi ahal izango dira zerbitzuak erabiltzen dituzten biktimak, emakumeak nahiz adingabeak. Halaber, ezagutu ahal izango da zein beharizan agertzen dituzten eta zein laguntza-mota eskuratzeko duten baliabideen bidez.

Datuen erregistroa hobetze-aldera, erreferentzia terminologiko eta kontzeptualen esparru komuna finkatu beharko litzatekeela adierazi da, jarduketa-eremu bakoitzeko beharrezko zehaztasunekin. Hala, arreta-zerbitzuetako profesionalek arazoaren gainean duten ulermena erraztuko da eta erakundeen artean alderatu daitekeen informazioa jaso ahal da. Asmo horren harira, bereziki azpimarratu beharra dago gizarte-zerbitzuen eremua; hori dela eta, agirian hainbat gomendio jaso dira eremu horretako datuak biltzeko sistema homogeen bat ezartzeko, eta, zehazki, udal-mailatik datu-erregistroa hobetzeko.

Identifikatu da erakundeak eta teknikariak datu-bilketaren garrantziaren inguruan kontzientziazteko behar orokorra, baita lan hori errazteko estrategiak ematekoa ere.

Arreta-zerbitzuak dituzten erakundeei dagokienez, zenbait gomendio zehaztu dira, besteak beste, alderdi hauei lotuta: datu pertsonalen erregistro eta kudeaketa; sistemetan adingabeen datuak gehitzea; eta indarkeriazko balizko egoerak erregistratzea euren desgaitasunagatik, gaixotasunagatik edo droga-menpekotasunagatik hartzen diren emakumeen kasuan.

Era berean, garrantzizkoa iritzi zaio datuak izateari, erabiltzaileek egiten duten zerbitzuen erabileran sakondu ahal izateko, bai eta gogobeteta-



ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

a. Datuen erregistroa eta jarraipena

b. Ikerketa eta hedapena

sun-maila ezagutzeari ere, erabiltzaileena zein zerbitzua ematen duten profesionalena.

Kapituluko bigarren zatian ezagutza handiagoa izateko beharra ikusi den arazoaren hainbat alderdiri buruzko gomendioak jaso dira, esate baterako, gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen perzeptzioaren bilakaera; emakumeen aurkako indarkeriak desgaitasunak, gaixotasun mentalak eta droga-menpekotasunak garatzeko edo larriagotzeko duen intzidentzia eta balizko eragina; prebentzio-jarduketan nahiz arreta- eta babes-neurrien eraginkortasunari lotutako gai zehatzak; eta esku hartzeko esparruetako arriskua baloratzeko tresnak sortzea.

A. DATUEN ERREGISTROA ETA JARRAIPENA

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan gizarte-zerbitzuen eremuan datuak erregistratzearekin lotutako gomendioak

EAEko udalaz gainerako erakundeei zuzenduta

40. Emakumeen aurkako indarkeriaren gainerako erreferentzia kontzeptual eta terminologikoen esparru komuna finkatzea, arreta-zerbitzuetako profesionalak arazoa errazago eta argiago uler dezaten
41. Gizarte-zerbitzuen eremuan arreta jasotzen duten emakumeen aurkako indarkeria-kasuen bolumenari eta ezaugarriei buruzko datuak erregistratzeko sistema homogeneoa ezartzea.
 - Gaur egun indarrean dagoen Erakundeen Arteko II. Segimendu Bartzordeak adostutako "Etxeko tratatu txarrei eta sexu-indarkeriari bu-



ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

a. Datuen erregistroa eta jarraipena

b. Ikerketa eta hedapena

ruzko informazioaren bilketa-eredua gizarte-zerbitzuentzat” eredia ordeztzen duen informazioaren bilketa-eredu berria diseinatzea.

- Gizarte-zerbitzuen eremuan erregistroko oinarritzko tresna gisa erabil dadila bultzatzea eta sustatzea, eta Fitxaren profesional erabiltzaileekin egiaztatzea egokitzapena.
42. Gizarte.net-en bidez kudeatutako diagnostiko sozialeko eta esku-hartzeko tresna informatikoa eta gizarte-zerbitzuen inguruan erakundeek erabilitako gainerako aplikazio informatikoak informazioa biltzeko eredu berrira egokitzea.
 43. Berdintasun-agenteei edo langile tekniko espezializatuei bide ematea Gizarte.net-en bidez kudeatutako diagnostiko sozialeko eta esku-hartzeko tresna informatikoa erabiltzeko, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen kasuak antzemateko, artatzeko, koordinatzeko eta jarraitzeko zereginak egiteko, bai eta beharrezko analisi estatistikoak ere.
 44. Erakundeak eta horietako langile teknikoak datuen erregistroaren garrantziaz eta horiek behar duten kalitateaz kontzientiaraztea, kasuen segimendua eta ebaluazioa egiteko, eta arretan hobekuntzak egiteko beharren hautematea, bereziki behar espezifikoekin taldeen kasuan.

Udalerri eta mankomunitateei zuzenduta

45. Gizarte-zerbitzuen eremuan informazioa biltzeari buruz indarrean dagoen erakundeen arteko akordioaren esparruan ezarritakoari atxikitzea eta, horretarako, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen datuen erregistroa ziurtatzea.
46. Datuen bilketaren integrazioa eta sistematizazioa gizarte-zerbitzuen berezko funtzioetako bat bezala sustatzea.
47. Zerbitzuen asteko plangintzan emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan artatutako kasuei buruzko datuak erregistratzeko denbora zehatza erreserbatzea.



ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

a. Datuen erregistroa eta jarraipena

b. Ikerketa eta hedapena

48. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko datu-erregistorako euskarri informatikoak hobetzea, informazio horren irisgarritasun handiagoa lortzeko, kasuak ezagutu, jarraitu eta ebaluatze aldera; eta beste erakunde batzuei jakinaraztea, azterketa eta ikerketak egiteko, beharrezkoa denean.
49. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan artatutako kasuei buruzko datuak biltzea urteko memorietan eta gizarte-eremuko programa eta zerbitzuei buruzko txostenetan, programa horiek biktimei arreta emateko programa espezifikoaren ingurukoak izan edo programa ez-espezifikoaren gainekoak izan.
50. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan arreta-zerbitzuak ematen dituzten erakundeei, udalerriekin eta mankomunitateekin dauden hitzarmen edo kontratuen bidez, indarrean dagoen erakundearen arteko koordinazio-esparrutik ondorioztatzen diren eta datuen bilketa argitzean duten behar beste jarraibide ematea.
51. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan erantsitako datuak biltzen dituzten erakundeekin elkarlanean aritzea (Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea...) eta erakunde horiek zerbitzu eta baliabide eta joeren erabilerari buruzko analisi globalak egiteko, baliabideak ebaluatze-ko eta beste hainbatetarako datuak ematea.

Arreta-zerbitzuak dituzten erakundeei zuzenduta

52. Datu pertsonalen erregistroa egitea, kontuan hartuta datu pertsonalak babesteko araudia: erregistratu aurretik, bilketari buruzko informazioa eta helburua ematea; datu pertsonalen isilpekotasuna eta segurtasuna bermatzea; datuen lagapen posibleetarako jakinarazitako baimena lortzea; indarkeriari aurre egiten dioten emakumeek datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko eskubideak baliatu ahal izatea ziurtatzea.



ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

a. Datuen erregistroa eta jarraipena

b. Ikerketa eta hedapena

53. Emakumeen aurkako indarkeriaren eraginpean dauden adingabeen segimendua egiteko datuak erregistratzeko sistemak sartzea.
54. Zerbitzua ematen duten profesionalen eta erabiltzaileen asetasun-maila ezagutzeko mekanismoak ezartzea, tresnen eta prozeduren homogeneizazio-ikuspegitik
 - Erabiltzaileen eta profesionalen asetasun-maila neurtzeko adierazle komunak, uneak eta bitartekoak zehaztea eta arreta-zerbitzuak dituzten erakundeen artean hedatzea.
 - Zerbitzuetan sistematikoki sartzea erabiltzaileen gogobetetze-mailari eta hobekuntza-proposamenei buruzko informazioa biltzeko mekanismoak.
55. Erabiltzaileen arreta-zerbitzu eta -baliabideen erabilerari buruzko ezagutza sakontzea, ibilbideen emaitzak egoera eta ezaugarrien arabera identifikatuz (adina, beharrian espezifikoa, bere kargurako pertsonak...):
 - Baliabideetara jotzeko eta bideratzeko datuak biltzea, kolektiboaren arabera ibilbideetan izan diren abandonu-puntuak ikusarazteko aukera ematen dutenak. Tokiko erakundeen kasuan, tokiko koordinazio-protokoloen jarraipen-lanen artean jorratu nahi da alderdi hau.
 - Talde zehatzek baliabide desberdinen gainean egiten dituzten sarrera eta erabilera desberdinak aztertzeko azterlanak egitea, bideratzean dauden joera posibleak ere ikertuko direlarik, talde desberdinek baliabide hauen gainean duten erabilera desberdina azaltzeko
56. Desgaitasunagatik, buruko gaixotasunagatik edo droga-mendekotasunagatik artatzen ari diren emakumeen historia klinikoan haurdunaldian, haurtzaroan, nerabezaroan eta/edo helduaroan bizi izandako emakumeen aurkako behin-behineko indarkeria-egoeretan sakontzea.



ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

a. Datuen erregistroa eta jarraipena

b. Ikerketa eta hedapena

B. IKERKETA ETA HEDAPENA

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan ikerketarekin lotutako gomendioak

Udalaz gaineke erakundeei zuzenduta:

57. Bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeen aurka egindako indarkeria-kasuetako babes-aginduak sakon aztertzea, besteak beste neurri horren eskaera aurkezteko edo ez aurkezteko arrazoiak, kontzesioen eragina eta hartutako aginduen edukia, nahiz horien ondorioak kontuan hartuta².
58. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikuspegi sozialean aldatetako ezagutzeko eta antzemateko azterlanak erregulartasunez egitea; eta adin desberdinetako gizonen emakumeen aurkako indarkeriari buruz dituzten iritziak eta kontzeptuak sakontzea, eta emaitzen zabalkundea egitea.
59. Emakumeen aurkako indarkeriaren alderdi desberdinak eta irismena aztertu eta hedatzea, baita behar bereziak dituzten taldeen zehaztasunak ere, prebentzio eta babeserako neurrien eta arreta-zerbitzuen diseinuan abiapuntu izan daitezen, ikuspegi integraletik erreparatuta
 - Adingabeen ikuspegia genero-indarkeriaren biktima gisa integratzea.
 - Desabantailak dituzten taldeetan, minoritarioetan eta/edo estigmatizatueta, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriaren ezaugarriak aztertzea: etorkinak, gutxiengo kulturaletako kideak, 60 urtetik gorako emakumeak, lesbianak, aniztasun funtzionaldun emakumeak, mendekotasun arazoak dituztenak, buruko gaixotasunak dituztenak..

2. Behatokiaren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 15eko bileran egindako gomendioa.



ERREALITATEAREN EZAGUTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

a. Datuen erregistroa eta jarraipena

b. Ikerketa eta hedapena

60. Hautzaroan (haurdunaldia barne), nerabezaroan eta/edo helduaroan zehar, emakumearen aurkako indarkeriaren eraginpean egoteak izan dezakeen eragina eta inpaktua ikertzea, desgaitasunak, buruko gaixotasunak eta toxikomaniak garatzeari edo larriagotzeari dagokionez.
61. Arriskua baloratzeko tresnak prestatzea eta erabaki egokiak hartzea gizarte-zerbitzuetarako eta osasun-eremurako.
62. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko arreta-baliabideen beharren segimendu sistematikoa egitea eta, horretarako, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aldi behin EAEn indarkeriaren inguruan dauden programa eta baliabideen gaineko ebaluazioa sistema iraunkor gisa hartzea, egon daitezkeen baliabide espezializatuen gabeziak eta/edo hobekuntzak ezagutzeko.
63. Sentsibilizazio-kanpainen eragina aztertzea eta arreta-baliabideak eta -prozedurak hedatzeko kanpainen eraginkortasuna ebaluatzea, jendearen eta indarkeria jasaten duten emakumeen gainean duten eragina ezagutzeko
 - Sentsibilizazio-kanpainen eta baliabide-hedapenaren eragina neurtzeko adierazleak eta bitartekoak zehaztea eta kanpainen planifikazioan sartzea
64. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimentzat zerbitzu eta baliabideak egokitzeko beharrei buruzko azterlanak egitea, hobekuntza orientatzeko eta arreta bermatzeko kolektibo guztiei: behar bereziak dituztenei, adingabeei, kultura-gutxiengoei.



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

SARRERA

Kapitulu horretan hiru alderdi azpimarratu dira zeinek eragina duten zerbitzu publikoek emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean ematen dituzten arretan; honako hauek hain zuzen: baliabideak izatea eta horien diseinua, biktimekin harremanetan dauden profesionalen gaiaren inguruan duten ezagutza-maila eta espezializazioa eta esku-hartzean parte hartzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa.

Dokumentu osoan jaso da Europako Kontseiluaren emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azken araudiaren ikuspegia. Horren arabera, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urrapena da, bai eta emakumeen aurkako diskriminazioa ere. Hori dela eta, atal horretako gomendioak bildu ditu batez ere.

Lehenik, zerbitzuek duten erantzukizuna aipatzen da, hain zuzen, nazioarteko estandarren arabera arreta egiteko, hala ez egitekotan eragindako kalteak konpontzeko, eta sistemako hutsak zuzentzeko. Administrazioen aurrekontuetan beharrezko zenbatekoa ezartzeko premia adierazi da, biktimen -emakume nahiz adingabeen- arretarako baliabideak eta zerbitzuak egoki mantentzeko. Hau da, baliabide eta zerbitzuok giza eskubideetan oinarritutako arreta eskaini behar dute, integrala eta espezializatua, doakoa eta berehalakoa, eta eskuragarria eta hurbila. Arretak emakumeen beharrak izan behar ditu ardatz, eta emakumeen jabeak zuzenduta eta genero-ikuspegitik egin behar da. Era berean, arreta biktimen beharrezkoak ezagututa diseinatu behar dira, eta behar bereziak dituzten taldeei arreta eman behar dira, baliabide-mota berriak sortuz edo daudenak hobetuz. Edonola ere, biktimen agentzia-ahalmena aintzatetsi, errespetatu eta bermatuko da, eskubideen eskagarritasunari, ebaluazioari eta euren beharrezkoak moldatutako zerbitzuak eskatzeari dagokienez.

Arreta egiten duten profesionalen prestakuntza aproposak baldintzatzen du arreta egokia ematea, hainbat sektoretan ematen dena: gizarte-arloan, polizian, justizian, osasun-arloan eta hezkuntzan. Kasu horretan, gomen-



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

dioak bi ataletan sailkatu dira, honako hauetan hain zuzen: batetik, gomendio orokorrak daude, plangintzari eta prestakuntzaren eta trebakuntzaren irismenari nahiz profesionalen prestakuntza birziklatzeari buruzkoak; eta, bestetik, esku hartzeko esparruen araberrako gomendio zehatzak.

Atal horren amaieran, biktimen arreta hobetzeko protokoloetarako gomendioak jaso dira, ezarpen orokorreko nahiz toki-maillako ezarpeneko protokoloetarako. Besteak beste, gomendioetan honako alderdi hauek jaso dira: mota horretako prozesuen sustapena, jarraipena eta ebaluazioa; koordinazio-egituretako parte-hartze aktiboa; konpromisoen berrespen formala; eta behar bereziak dituzten kolektiboek koordinazio-foroetan parte hartzeko estrategiak garatzearen komenigarritasuna. Halaber, jarduketa-eremuen araberrako beste eskari batzuk jaso dira. Horiek erakundeen koordinazio handiagoo eta hobea azpimarratu dute eskatutako arreta integrala emateko gako gisa.

A. ARRETA-ZERBITZUAK

Indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta-baliabideen planifikazioarekin, osararekin eta irismenarekin lotutako gomendioak, EAEko arreta-zerbitzudun erakundeei zuzenduak

A. ZEHARKAKOAK

- 65. Arreta-zerbitzuak ikuskatu eta ebaluatu egin beharko dira eta, arreta adostutako estandarrei jarraikiz eman ezean, zerbitzu bakoitzak bere gain hartu beharko du erantzukizuna, eragindako kaltea konpondu eta sistemaren hutsak zuzendu, etorkizunean zerbitzu egokia bermatzeko.
- 66. Aurrekontuetan biktimei, emakumeei eta adingabeei eta beren kargura dauden bestelako mendeko pertsoneri arreta espeziali-



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

zatura bermatzeko beharrezko baliabideen zuzkidura lehenestea eta babestea.

67. Indarkeriaren biktima diren emakumeei eta beren seme-alabei emandako arreta integrala, espezializatua, doakoa, berehalakoa, eskuragarria, hurbilekoa eta emakumeen beharretan zentratzen dena dela ziurtatzea, giza eskubideetan oinarritzen dena, emakumeak ahalduzkoak eta genero-ikuspegitik egindakoa.
68. Arreta espezializatuko baliabide eta zerbitzuek denboran irauten dutela eta egonkor daudela bermatzea eta, horretarako, beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza materialak esleitzea.
69. Genero-indarkeriaren biktima den adingabearen interes nagusia kontuan izatea eta, horretarako, beren identifikazioa bermatzea eta egoera bakoitzarekin bat datorren beharrezko esku-hartzea ematea.
70. Programa berriak edo dagoeneko badauden zerbitzuak diseinatzea eta ezartzea, bikotean genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei arreta espezializatua eman ahal izateko, haurtzarora eta genero-indarkeria lotzen dituen, eta talde honen adinen desberdintasunaren ondoriozko etapak kontuan hartzen dituen (jaiotza, haurtzarora, pubertarora, nerabezarora), bai eta ezaugarri desberdinak ere (fisikoa, psikikoak, sentsorialak edo bestelakoak).
71. Genero-indarkeriaren kasuetan adingabeen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko arreta eta neurrietarako bide ematea, amaren baimena nahikoa izatea, aita erasotzailearen baimenik behar izan gabe.
72. Baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen konfidentziasuna eta anonimatua ziurtatzea:
 - Inplikaturako erakunde guztiek datuen babesaren gaineko indarreko lege eta arauak betetzen dituztela bermatzea
 - Zehazki, ezagutza jakinaraziarekin eta emakumeen baimenarekin ekitea, jarduketa desberdinetarako;



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

- Emakume biktimei bere eskubideen, dauden baliabideen eta abarren kontsulta egiteko eta informazioa eskatzeko eskubidea aitortzea, datu pertsonalak jakinarazteko beharrezko gabe
 - Konfidentzialtasunaren eta anonimatuaren bermea arreta koordinatua emateko kalterik gabe egingo da.
73. Behar bereziak dituzten biktimentzako baliabideetan arreta egoia bermatzea.
74. Prozedurak berrikustea biktimen, emakume eta adingabeen eta beren kargura dauden gainerako mendeko pertsonen eta arreta-ko langileen segurtasunerako beharrezko neurriak sartzeko.
75. Artatutako emakumeen autoestimua eta ahalduntzea sustatzea eta, horretarako, hasieratik enpatia-jarrera, sinesgarritasuneko hartzea eta aktiboki entzutea eta iritzi eta oharrei buruzko epaiak alde batera uztea. Horrek dakar hasiera batean ez baztertea lekukotzarik, emakumearen ezaugarriak, komunikatzeko moduak eta/edo aurrekariak gorabehera. Halaber dakar prozesuen eta beren errealitatea eratzten eta ahalbidetzen duen guztiaren zati aktibo izatea; une oro egiten ari denari eta emango diren urratsei buruzko informazioa izatea eta, horrela, erabakiak hartzea erraztea.
76. Indarkeriaren biktima diren emakumeak izateko gaitasuna onartzea, errespetatzea eta ziurtatzea, eskubideak eskatzeari, beharretara egokitutako zerbitzuak ebaluatu eta eskatzeari dagokionez.
77. Emakume biktimen kargura dauden pertsonen zaintza puntualerako laguntza-neurriak bermatzea eta, horrela, horiek baliabideetara jotzeko eta horiez gozatzeko.
78. Biktimen arreta-programetan antzeko indarkeria-kasuren bat gainditu duten emakumeekiko harremana sartzeko, erreferente positiboak eduki ditzaten.



ARRETAREN GAINENKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

- 79. Zerbitzuetan inplikaturako langile guztiek parte hartzeko eta arre-
tarako prozedurak sortzea, estrategiak eta planak diseinatzean,
horiek ezartzean, horien segimendua egitean eta ebaluatzean.
- 80. Erakunde titularrek arre-
tarako baliabideak ebaluatzea, eskuraga-
rritasunari, irisgarritasunari eta kalitateari dagokienez, eta, horre-
tarako, erabiltzaileek azterlanetan parte hartzen dutela ziurtatzea.

B. GOMENDIO ZEHATZAK ESKU-HARTZE EREMUAREN ETA BALIABIDE-MOTAREN ARABERA

B.1. GIZARTE-EREMUA

B1.1. HARRERA

- 81. Harrera-baliabideen alorrean beste aukera batzuk aztertu eta
martxan jartzea, egun daudenak osatzeko eta baliabide hauek
emakume erabiltzaileen profil desberdinek dituzten beharriza-
netara egokitzeko, daukagun testuinguru sozioekonomikoaren
ezaugarriak kontuan hartuta, sarrerak luzatzeko joera baitago
- 82. Udal-eskumeneko harrera-pisuetan laguntza-zerbitzua eskaini-
tzea, artatutako biktimekiko esku-hartzea babestu eta sustatzeko
- 83. Etxean tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako errekupe-
razio- eta gizarteratze-zentro bat sortu eta martxan jartzea, pre-
miaz, arazo sozial anitzarekin lotutako beharrizan bereziak kon-
tuan hartuta, etxean tratu txarrak jasan dituzten emakumeentza-
ko harrera-baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007
Dekretuan jasotzen den bezala (2-2 art.)
- 84. Harrera-baliabideen lurralde-sare bat eratzea, Bizkaiko Lurralde
Historikoan bizi diren emakume guztiek berau erabiltzeko aukera
izan dezaten eta baliabide horiek optimizatu daitezzen.



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

- 85. Behar bereziak dituzten emakumeentzako harrera-zerbitzuak egokitzea.
- 86. Adingabe egoiliarrentzako zaintza- eta arreta-baliabideak erraztea, beren ama edo tutoreen autonomia handiagoari bide emateko.
- 87. Adingabeek hurbilenean inguruneekin harremana eta eguneroko jarduerak eduki ahal izan ditzaten erraztea: lagunak, ekipoak, taldeak, eskolaz kanpokoak etab.

B1.2. ARRETA PSIKOLOGIKOA

- 88. Bizkaiko Foru Aldundiko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen kasuetarako Esku-hartze familiarren Arreta Psikologikorako Zerbitzua-aren irisgarritasunari eustea eta hura sendotzea, programa Bizkaiko udalerrri eta eskualde desberdinetara hurbil dadin, lekualdaketan distantziak eta denborak eragiten dituzten sarbide-arazoak ezabatuta.
- 89. Behar bereziak (hizkuntza aldetiko oztopoak etab.) dituzten biktimei terapia psikologikora jotzeko aukera erraztea
- 90. Genero-indarkeriaren biktimei diren adingabeen tratamendu psikologikoa erraztea, amaren baimenarekin, aita erasotzailearen baimenik behar gabe.

B1.3. DERIBAZIO JUDIZIALAREN BIDEZKO FAMILIA ELKARGUNEAREN PROGRAMA (FEP)

- 91. Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Lege Organikoaren (abenduaren 28ko 1/2004) erreforma kontuan hartuta eta umeak ere zuzeneko biktimek direla aintzat hartuta, indarkeria honen biktimei diren adingabeak Familia Elkargunearen Programara bideratzea gogoan hartzea.



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

B1.4. ETXEBIZITZA

- 92. Indarkeriaren biktima diren emakume guztiek etxebizitza bat eskuratzeko aukera dutela bermatzea, horretarako beharrezko bi-tartekoak ezarriz.
- 93. Alokairuko etxebizitzaren tramitazio eta adjudikazio zuzena sinplifikatu eta erraztea, harrera-baliabideetan dauden emakume bik-timentzat, zentroetan behar baino gehiago egon ez daitezen eta horrek eragiten dituen ondorio negatiboak saihestu daitezen.

B1.5. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

- 94. Prestazioen sistema egokitzea, etxeko edo genero-indarkeriaren bik-tima diren emakume guztiei, baliabide ekonomikoak ez badituzte, bizitza autonomia egin ahal izateko bizirauteko gutxieneko baliabide batzuk errazteko laguntza ekonomiko batzuk bermatzeko.
- 95. Emakumearekin esku hartzen ari diren gizarte-zerbitzuek eginiko txosten bat laguntza ekonomikoetara jotzeko balio dadin ezartzea.

B1.6. GIZARTE- ETA LAN-EREMUA

- 96. Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen antzemate-adierazleen sistema zehaztea, zabaltzea eta aplikatzea gizarteko eta laneko esku-hartze espazioetan.
- 97. Lanbiden diru-sarrerak bermatzeko errentara jotzeko genero-in-darkeriaren biktimaren legezko egiaztapenerako dagoen muga berrikustea, genero-indarkeriaren biktimek laguntza horietara jo ahal izateko, gizarte-zerbitzuek emandako txosten baten bidez.
- 98. Aurkeztu beharreko izapideak eta dokumentazioa sinplifikatzea, eta irizpideak bateratzea Lanbideko bulegoetatik egiten diren iza-pideei dagokienez.



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

- 99. Emakume biktimentzako enplegua bilatzeko laguntza erraztea eta beren beharretara egokitutako ibilbide bereziak diseinatzea, beren prestakuntzarako eta lan-merkatura sartzeko. Horren harira, beharrezkoa da beren seme-alabak (3 urtetik beherakoak) haurtzaindegi publikoetara sartzan direla bermatzea, kontuan hartuta gaur egun tokiaren arabera ezinezkoa dela plaza-eskaria estaltzea
- 100. Enpresa, unibertitate, elkarte, kutxa eta bankuekin, besteak beste, lankidetzan lan-ideiak eta -proiektuak sortzea erraztuko duten espazioak sustatzea.

B1.7. BESTE BATZUK

- 101. Udaleko gizarte-baliabideak erabiltzen dituzten emakume biktimek gizarte-arretan pertsona erreferente bera edukitzeko aukera aztertzea, baita arlo espezifikoetako profesionalen kasuan ere (psikologoak, aholkulari juridikoak, eta abar), beste udalerrri batera lekualdatu behar direnean eta gai horretan lehentasun hori adierazten dutenean. Gauza bera beren seme-alaben arretari dagokionez.
- 102. Indarkeriaren biktima diren emakumeek, udaleko gizarte-zerbitzuen eskutik arreta jasotzeko orduan, beren egoitzetatik eta/edo lantokietatik hurbilen dauden zerbitzuetan edo beraiek, edozein motibo arrazoiturengatik, beren erroldaren arabera dagokien udalerrria gorabehera, aukeratutako lekuetan egin ahal izatea.
- 103. Larrialdi-egoeretakako segurtasuneko oinarrizko plana egitea, betiere emakumearekin (gero zerbitzu espezializatueta jotzea ala ez jotzea). Planak honako hauek jasoko ditu³:

3. Erreferentzia gisa hurrengo dokumentuan jasotako eredia har daiteke: UNFPA, Psycho-social services provision, part of multi-sectoral response to GBV. Hemen eskuratu daiteke: http://gbv-implement-health.eu/SOPs_psycho-social_services_eng.pdf



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

- Pertsonen zerrenda eta harremana (lagunak, auzokideak, erreferentziazko elkarteak...) horiei deitu ahal izateko eta, arrisku-egoeretan, beraiekin babestu ahal izateko.
- Hurbileko auzoko pertsona bat edo bi identifikatzea, eta horiei genero-indarkeriaren egoeraren berri eman ahal izatea eta laguntza eskatu ahal izatea, hala behar izanez gero.
- Etxebizitzatik premia irteteko prozedura eta praktika.
- Poltsa bat prestatzeko edukiaren zerrenda bat egitea eta hura prestatzea oinarrizko eta beharrezko elementuekin, etxetik azkar eta erraz ateratzeko moduko gauzeekin.
- Norberaren eta bere mendekoen segurtasuna babesteko urratsak eta orientabideak, egoera horietan.

104. Sareen prestakuntza eta emakume eta feministen elkarten lankidetzak emakumeen ahaldundutze kolektiboaren eragile gisa errazten duten programen garapena sustatzea.

B2. HEZKUNTZA-EREMUA

105. Genero-indarkeriaren kasuetan aitaren baimena behar ez izatea umeak matrikulatzeko, ikastetxez aldatzeko eta umei arreta emateko beste jarduketak batzuetarako.
106. Hezkuntzaren arloan eskuduna den sailak amekin batera tratatu txarren biktimetarako egoitza-baliabideetan hartutako umeen ikastetxeen kokapen geografikoa babestea.
107. Hezkuntza-eremuan emakumeen aurkako indarkeriaren kasuak, eskola-etapan dauden adingabeen familia-inguruneak zein pertsonalekoak izan, antzemateko adierazle sistemak zehaztea, zabaltzea eta aplikatzea.
108. Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak sartzeko, familia-inguruneak zein pertsonalekoak izan, eskola-zailtasunak dituzten kasuen analisia.



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

- 109. Detektatutako kasuetan, informazioa, jakinarazpena eta jarduketak erregistratzeko protokolo adostua prestatzea, baliabide egokietara bideratzea barne.
- 110. Urtero eskola-erkidegoan, batez ere ama eta aitei, adingabeak genero-indarkeriaren eraginpean egoteak dakartzan ondorioak zabaltzea eta nagusi eta adingabeentzako baliabide, zerbitzu eta arretarako harremanei buruzko informazioa jasotzea.
- 111. Eskola-elkartea genero-indarkeria prebenitzean eta harekin amaitzean sensibilizatzea eta horren gaineko prestakuntza ematea, eta, horretarako, jarduerak, hitzaldiak antolatzea, zabalduerako materialak edo bestelako dokumentazioa hedatzea eta ikastetxe bakoitzean ekintza zehatzak egitea.

B3. OSASUN-EREMUA

- 112. Genero-indarkeriaren kasuetan, umeek behar duten osasun-arreta jasotzeko aitaren baimena behar ez izatea ezartzea.
- 113. Osasunaren arloan eskuduna den sailak amekin batera tratatu txarren biktimentzako egoitza-baliabideetan hartutako umeen osasun-zentroei buruzko informazioa babestea, besteak beste, horien kokapena eta arreta eskaintzen dieten osasun-langileen identifikazioa.
- 114. Biktima diren emakume eta adingabeen detekzioa sustatzea osasun-zentroetatik eta ospitaleetako larrialdietatik eta, horretarako, horietako langileak sensibilizatzea eta prestatzea.
- 115. Kontsultetan emakumeei beraiei bakarrik eskaintzea arreta, laguntzaileak egoteak beren lekukotza eta arreta ez baldintzatzen.



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

116. Genero-indarkeria identifikatzen denean edo horren susmorik dagoenean, ahal dela, emakumearekin batera larrialdi-egoeratarako segurtasuneko oinarrizko plana prestatzea eta horrek honako hauek jasotzea⁴:
 - Pertsonen zerrenda eta harremana (lagunak, auzokideak, erreferentziazko elkarteak...) horiei deitu ahal izateko eta, arrisku-egoeretan, beraiekin babestu ahal izateko.
 - Hurbileko auzoko pertsona bat edo bi identifikatzea, eta horiei genero-indarkeriaren egoeraren berri eman ahal izatea eta laguntza eskatu ahal izatea, hala behar izanez gero.
 - Etxebizitzatik premia irteteko prozedura eta praktika.
 - Poltsa bat prestatzeko edukiaren zerrenda bat egitea eta hura prestatzea oinarrizko eta beharrezko elementuekin, etxetik azkar eta erraz ateratzeko moduko gauzekin.
 - Norberaren eta bere mendekoen segurtasuna babesteko urratsak eta orientabideak, egoera horietan.
 - Arretarako baliabide, zerbitzu eta harremanei buruzko informazioa.
117. Osasun-arloko profesionalen kolektiboaren artean osasun-zerbitzuetan antzematen diren emakumeen kontrako indarkeria-egoeratarako aurreikusitako protokolo eta jarduketara-urratsen zabalkundea eta ezagutzea aztertzea eta horien egokitzapena ebaluatzea.
118. Emakumeen gaineko kontrola eta menderakuntza (kultura edo bestelako arrazoiak emanda) bereziki naturalizatuta dauden inguruen jatorrira jotzeko arazoak dituzten emakume eta adingabeen beharretara egokitutako laguntza bermatzeko neurriak

4. Erreferentzia gisa hurrengo dokumentuan jasotako ereduak har daitezke: UNFPA, Psycho-social services provision, part of multi-sectoral response to GBV. Hemen eskuratu daitezke: http://gbv-implement-health.eu/SOPs_psycho-social_services_eng.pdf



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

hartzea eta, horretarako, protokolo zehatzak ezartzea eta kolektibo horietako pertsoneri arreta emateko langileei prestakuntza zehatza ematea.

- 119. Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleen bilketan, osasun-langileen inplikazioa sustatzea eta, horretarako, informazio hori edukitzeko garrantzia agerian uztea eta datuak erregistratzeko prozesua sinplifikatzen duten informatikako tresnak erraztea.
- 120. Pazienteei Arreta emateko Zerbitzuei, bai lehen mailako arretakoei, bai espezializatutakoei, baliabideez hornitzea, ebidentzia argirik gabeko tratu txarren susmoa dagoenean detekzioan parte hartzeko eta dagozkion osasun-zerbitzuekin baterako jarduketaprokoloa ezartzeko.

B4. POLIZIA-EREMUA

- 121. Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuari oharra ematen zaiola bermatzea, betiere biktimak hala nahi badu, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen txanda bereziko abokatu batekin elkarrizketa izateko, baldin eta salaketa bat jarri nahi badu edo babes-agindua eskatu nahi badu edo horren ondorioen berri izan nahi badu.
- 122. Etxebizitzan edo biktima kasu horietan dagoen lekuan deklarazioa hartzea baloratzea, baldin eta emakumea komisaria batera joan ezin bada edo hurbilen duen komisariara iritsi ezin bada.
- 123. Adingabeak beren amek deklarazioa egin bitartean eta salaketa jarri bitartean aurrean egon daitezen neurriak hartzea.
- 124. Adingabe biktimen arretan prestakuntza duten profesionalak edukitzea, komisarietan eta horietatik kanpo adingabe horiei arreta eman ahal izateko beren amekin/tutoreekin zuzeneko jarduketak egin bitartean.



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa

B5. EREMU JUDIZIALA

- 125. Erasotzailea kontrolatzeko neurriak ezartzea, emakumeak ez biktimizatzeko; horretarako, biktimen babesa areagotuko da.
- 126. Ustezko erasotzaileak eta biktimak epaitegietan espazio komunik partekatzen ez dutela bermatzea eta biktinek epaitegietan itxaron behar dituzten tarte luzeak arintzea.
- 127. Babes Aginduaren eskaera eta salaketa baino lehenagoko laguntza letraduna kasu guztietan aurrez aurrekoa izan dadin finantzazio nahikoa bermatzea, kontuan hartuta biktimei aurrezko aurreko laguntza letradun espezializatua eskaintzea garrantzitsua dela kasuari orientazio egokia emateko.
- 128. Epaia eta neurriak gauzatu ondoko prozedura eta faseetan, biktimetan, emakumeetan eta adingabeetan neurriak hartzeak duen eraginaren eta egoeraren segimendua egiteari buruz gizarte-zerbitzuek eta espezializatuek eginiko txostenak eskatzea eta kontuan hartzea.
- 129. Seme-alaben inguruko zaintza- eta bisita-eskubideak erabakitzeko unean, kontuan hartzea Istanbulko Hitzarmeneko⁵ aplikazio-eremuan jasotako indarkeriaren jazoerak eta ziurtatzea zaintza- eta bisita-eskubide batek ere ez dituela arriskuan jarzen biktimaren eta bere seme-alaben eskubideak eta segurtasuna.

5. Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Istanbulen adostu zutena, 2011ko maiatzean, Europako Kontseiluko 47 estatu kideek. 2014ko abuztuan sartu zen indarrean. Kontsultatu hemen: 137 zenbakiko BOE, 2017/06/06koa edo www.coe.int/conventionviolence orrian.



ARRETAREN GAINENKO GOMENDIOAK

a. Arreta-zerbitzuak

b. Profesionalen prestakuntza

c. Erakundeen Koordinazioa

B. PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA

Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko planifikazioarekin, profesionalen prestakuntzaren irismenarekin eta prestakuntza-birziklapenarekin lotutako gomendioak.

A. GOMENDIO OROKORRAK

130. Genero-indarkeriaren biktimekin lanean diharduten sektore profesionalentzat Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak diseinatutako eta abian jarritako oinarritzko onlineko prestakuntza eta aurreratua ezartzen jarraitzea.
131. Biktimen kolektibo horri zuzendutako arreta-zerbitzu eta -programak ematen lan egiten duten erakundeentzate laguntzaileetako profesionalen prestakuntza horretarako bidea zabaltzea.
132. Bikotean genero-indarkeriaren adingabe biktimen inguruko prestakuntzarako arreta berezia ematea.
133. Eremu horretan (gizarte-lana, zuzenbidea, psikologia, medikuntza, erizaintza, polizia, epailetza, fiskaltza, irakaskuntza etab.) lanean diharduten profesionalen hasierako eta etengabeko prestakuntzari ikuspegi homogeneoa ematea eta prestakuntza horri bi mailetan heltzea giza eskubideak, generoa eta emakumeen ahalduntzea bateratzen dituen ikuspegitik:
 - Hasierako prestakuntzan, gai hori jasotzea emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan lanbidea gauzatzearekin lotutako unibertsitateko ikasketa-plan guztietan.
 - Prestakuntza etengabea, erakunde bakoitzean urteko prestakuntza-planak prestatzea eta horiek garatutako lanen arabera behar duten espezializazio gehiagoko edo gutxiagoko beharrei erantzuten dizkieten prestakuntza-ekintzak jasotzea –bertan aktiboki parte hartu beharko dute langile hartzaileek–.Urteko prestakuntza-plan horien barruan, ikastaroen eta emandako prestakuntza-ekintzen ebaluazioa jasoko da: helburuak betetzeari, edukiei eta bertaratzen direnek eskuratzen duten ikaskuntza mailari dagokienez eta pertsona prestatzaileek garatutako



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

a. Arreta-zerbitzuak

b. Profesionalen prestakuntza

c. Erakundeen Koordinazioa

lanari dagokionez, eskaintzaren hobekuntzari aukera emateko, bai materia eta gaietarako, bai irakasleei dagokionez.

Prestakuntza hedatzea, ez soilik arreta zuzeneko profesionalengana, baizik eta baita langile politikoengana eta zerbitzuak kudeatzen dituztenengana ere, kasuan kasu egokitzat jotzen den sakontze-mailarekin.

- Prestakuntza behar bereziak (buruko gaixotasuna, droga-mendekotasuna, migratzaileak, askotariko kultura-taldearenak, aniztasun funtzionalak dituztenenak) dituzten biktimentzako arretari buruzko alderdiak jasotzea prestakuntzan.
- Erakundeetatik langileak gai honetako unibertsitate-espezializazioko ikastaroetara sartzeko laguntza eta bultzada ematea.

134. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntza-jarduerak garatzeko eta/edo materialak prestatzeko beharrezko zuzkidura ekonomikoa ziurtatzea.

135. Erabilera publikorako, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan daitezkeenei arreta emateko aukera duten testuinguru profesional guztietan aplikagarriak diren prestakuntzako eta orientabide praktikoen materialen onlineko bilduma bat prestatzea eta mantentzea, eta, bertan, indarkeria antzemateko baterako urratsak, aurretiko ebaluazioa eta kasuaren ebaluazio integrala jasotzea, azken bietako arrisku-balorazioa barne, eta erakunde edo profesional bakoitzak bere eskuduntzen arabera aplikatu ahal izatea.

B. ZEHATZAK ESKU-HARTZE EREMUAREN ARABERA GIZARTE-ZERBITZUAK

Gizarte-eremuko profesionalen prestakuntzarekin lotutako gomendioak:

136. Lehen arretako gizarte-zerbitzuak osatzen dituzten talde profesionaletan emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko prestakuntza espezializatua duten langileak daudela bermatzea.



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza**
- c. Erakundeen Koordinazioa

- 137. Laguntza eta ikuskaritza espezializatua ematea, kasuen segimendua egiteko eta horiek ulertzeko eta behar diren esku-haritzeak egiteko.
- 138. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta emateko zailtasunen inguruko baterako hausnarketa- eta analisi-espazioak irekitzea; horietan emakumeen eta feministen elkarte eta erakundeak sartu beharko dira.

Langileak hautatzeko prozesuen egokitzapenarekin lotutako gomendioak.

- 139. EAEko administrazio publikoetako langileak hautatzeko plazen deialdien gai guztietan, zeharka sartuko dira emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gaiak, eta hura katalogatuko da egiturazko gisa eta horrekin berehala amaitu beharreko gisa.
- 140. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta espezializaturako plazen deialdien gaietan, legegintzako alderdiei, judizialei, polizialei, osasunekoiei, psikologikoei eta/edo sozialei buruzko gaiak sartzea eta, egokia irizten denean, gaiaren inguruko prestakuntzako eskakizun bereziekin osatzea.
- 141. Emakume eta/edo adingabeen arreta jeneralistara bideratutako plazen deialdien gaietan, genero-indarkeria sartzea –definizioa, motak, indarkeria-zikloa, adierazpenak eta biktimen ondorioak–, kasuak detektatzeko eta orientazio egokirako.

Administrazio publikoek emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko programa, zerbitzu eta prestazioak kontratatu, adostu edo konzertatzearekin lotutako gomendioak

- 142. Administrazioak emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten zerbitzudun enpresa edo erakundeei eskatzea horretarako ezarri dituen esperientzia- eta prestakun-



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

a. Arreta-zerbitzuak

b. Profesionalen prestakuntza

c. Erakundeen Koordinazioa

tza-baldintzak bete eta egiaztatzeko programa emango dutela profesionaleri dagokienez: titulazioaren baldintzak, arloak eta esperientzia profesional gisa eskatutako denbora.

143. Talde profesionala osatzen duten figuretan ordezkapen edo aldaketa bat dagoen bakoitzean, aldaketa hori administrazioari behar bezala komunikatzeko eskatzea, proposatutako pertsonak eskakizunak betetzen dituztela aurretiaz eta dokumentazio eta titulazio bidez egiaztatu beharko delarik.
144. Kontratazio eta hitzarmenatarako, zerbitzua hainbat hizkuntzatan emateko gaitasuna neurtzea, profesionalak genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin eta aniztasun funtzionala duten pertsonekin esku hartzeko prestakuntza neurtzea.

EREMU JUDIZIALA

145. Eusko Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza-eskaintza lehenestea operadore juridikoentzat, batik bat epaileentzat eta, horretarako, prestakuntza-estrategia eta beren eremurako prestakuntza bereziko plana ezartzea, giza eskubideak, generoa eta emakumeen ahalduntzea bateratzen dituen ikuspegitik.
146. Zeharka sartzea eremu judizialera bideratutako jardunaldi eta biltzarretan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hitzaldi bereziak eta, horrela, prozedura eta neurri judizialek dituzten oztopoak eta arazoak nabarmentzea eta, besteak beste, bikoitean genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen gaineko gai bereziak nabarmentzea.
147. Eremu horretan antolatzen diren ikastaroen laguntzari eta balorazioari buruzko informazioa jasotzea, sexuaren eta operadore juridikoaren arabera berezita.



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa**

C. ERAKUNDEEN KORDINAZIOA

A. ERAKUNDE-KOORDINAZIO GLOBALA

Oro har ezarri beharreko protokoloekin eta koordinazioarekin lotutako gomendioak

148. Egungo Erakundeen arteko II. Akordioa berrikustea, estatu eta Europa mailako araudian erregistratutako aldaketak kontuan hartuta (1/2004 Lege Integralean, Istanbuleko Hitzarmenean... egini-ko aldaketak), bai eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta artatzeko nazioarteko estandarrak ere.
149. Indarrean dagoen Erakundeen arteko Akordioaren esparruan hartutako konpromisoak betetzen direla sustatzeko ezarritako segimendu-egituren funtzionamendu erregularra ziurtatzea: Jarraipen Batzordea, Erakunde arteko Talde Teknikoa, Gizarte Zerbitzuen Azpi-batzordea, eta hala badagokio, erakundeen koordinazioa etengabe hobetzen dela sustatzeko sortutako lan-taldeak.
150. Indarrean dagoen Erakundeen arteko Akordioa ebaluatzea, prozesuari eta emaitzei dagokienez, koordinazioaren eraginkortasuna, kalitatea eta iraunkortasuna zehazteko eta ebaluazioaren emaitzak zabaltzeko.
151. Koordinazio eraginkorra zailtzen edo eragozten duten oztopoak identifikatzea eta gai honen inguruan sisteman antzemandako hutsak aztertzea eta, horretarako, horiek zuzentzeko hobekuntza-ekintzak zehaztea.
152. Hezkuntza- eta osasun-eremuen partaidetza aktiboa erakundeen koordinazioko foro guztietan.
153. Behar bereziak dituzten kolektiboek koordinazio-foroetan parte hartzeko estrategiak garatzea, biktima horiek behar dituzten beharrak agerian uzteko eta horien gaineko arreta hobetzeko.



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa**

Toki mailan ezarri beharreko protokoloekin eta koordinazioarekin lotutako gomendioak

- 154. Indarrean dagoen Erakunde arteko Akordioa sinatu duten erakunde guztiek beren konpromisoa tokian-tokian ezartzen diren koordinazio-protokoloetan aplikatzea, akordio horiek sinatuz eta koordinazio-prozesuko fase guztietan era aktiboan parte hartuz: diagnostikoa, egikaritzea, eta esparruan ezartzen diren koordinazio eta jarraipenerako egiturak.
- 155. Tokiko protokoloa egiteko diagnostikoa ikuspegi partaidearekin betetzea, tokiko agente gako guztiak garapenean aplikatuz, protokoloaren prozesuan konprometituta eta inplikaturik egon daitezela sustatzeko.
- 156. Tokiko protokoloen segimendua eta ebaluazioa lehenestea eta, horretarako, beharrezko baliabide ekonomikoak esleitzea.
- 157. Tokiko protokoloetan sendotzea Ertzaintzaren ikerketa arloen partaidetza, sexu erasoetan arreta hobetzeko.
- 158. Tokiko arreta-protokoloetan bakoitzean parte hartzen duten erakunde desberdinen artean informazioa trukatzeko tresnak ezartzea, betiere Datuak babesteko Lege Organikoaren arabera, eta biktimen adostasuna izanda.

B. SEKTOREEN (ARTEKO) KOORDINAZIOA

GIZARTE-EREMUA

- 159. Gizartean, berdintasunean eta haurrekin esku hartzeko arloen artean koordinazio-protokoloak ezartzea, batera lan egin dezaten, emakumeen aurkako indarkeria-kasuak hobeto antzemateko, artatzeko eta horien segimendu hobea egiteko, eta, horretarako, emakumeen ibilbide osoan espedientea itxi arte



ARRETAREN GAINENKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa**

identifikaziorako irizpide eta tresnak partekatzea, bai eta jarduketeta-prozedurak ere.

160. Udalerrri eta mankomunitateetako gizarte-ongizatearen eta berdintasunaren arteko koordinazioa hobetzea, biktimen (emakumeak eta adingabeak) arreta egokia, emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko prestakuntza-ekintzen programazioa, indarkeria-kasuen baterako segimendua eta abar sustatzeko informazio-trukea bermatzen duten lan-estrategiak hitzartuz.
161. Udalerrri eta mankomunitate desberdinen arteko koordinazioa kontuan hartzea, indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta-zerbitzu edo -baliabideen baterako erabileraren bidez, nola erakundeek dituzten baliabideei dagokienez, hala baliabide berriak elkarren artean martxan jartzeari dagokionez.

POLIZIA-EREMUA

162. Polizia-, gizarte- eta berdintasun-eremuen arteko lankidetzaren indartzea, biek jarduera-protokoloak eta baliabideak ezagutu ditzaten eta sektoreen artean koordinazioa erraztu dadin, indarkeria jasaten duten emakume eta adingabeei emandako arretaren barruan.
163. Eremu autonomikoko truke-foroak egitea, Ertzaintzak eta genero-indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumeei arreta emateko unitate bereziak dituzten udaltzaingoei (eta gizarte-zerbitzuen taldeak eta beren udalerrietako berdintasun-arloak) beren esperientzia eta ezagutzak beste udalerrri batzuekin partekatzeko eta zabaltzeko.

EREMU JUDIZIALA

164. Justiziaren arloan eskumena duen sailari eskatzea Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Legearen eta Etxeko Indarkeriaren biktimak babesteko Aginduen



ARRETAREN GAINEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa**

eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloaren jarraipenerako lurralde-batzordeen funtzionamenduari ekiteko, funtsezko garrantzia baitauka aurreko ibilbidean, jarduera-eremu desberdinetatik antzemandako zailtasun eta disfuntzioak aztertzeke eta kasu bereziki gatazkatsuei erantzuteke proposamenak planteatzeko orduan.

OSASUN-EREMUA

- 165. Osasun- eta gizarte-eremuen arteko koordinazioa eta lankidetzaz hobetzea, egoera gatazkatsuak antzemateko adierazle-sistemaren aplikazioa erraztuko duten lan-espazioak ezar daitezzen, eta biktimen arretaren gaineko gizarte-baliabide espezializatuen ezagutza hobetzea.
- 166. Emakumeen aurkako indarkeriaren arretan inplikaturik dauden beste erakunde batzuekin koordinatzea lehen arretako eta arreta espezializatuko kontsultetan antzemandako biktimentzako, emakume eta adingabeentzako, jarduketak.
- 167. Erlazionatutako buru-patologiak dituzten emakume eta adingabeei erantzun eraginkorra emateko espazio soziosanitarioa ezarritzea, osasun-arreta zehatza behar baitute gizarte-ekintzez gain.
- 168. Emakume biktimen beharrezko konfidentzialtasuna bermatzen duten mekanismoak antolatzea, beren kokapena babestu behar denean (adibidea: kargura dituzten seme-alabekin batera harrera-baliabideetan dauden emakumeak, segurtasun-motiboen-gatik etxebizitza aldatu duten emakumeak etab.), aitzak Osakidetxari seme-alaben osasunaren gaineko informazioa eskatzen dien kasuetan.



ARRETAREN GAI NEKO GOMENDIOAK

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeen Koordinazioa**

HEZKUNTZA-EREMUA

- 169. Hezkuntza- eta gizarte-eremuen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea, egoera gatazkatsuak antzemateko adierazle sistemak ahalbidetzen duten lan-espazioak ezartzeko asmoz.
- 170. Hezkuntza-eremuaren barruan protokoloak ezartzea/aplikatzea, kasuak antzemateko eta artatzeko, bai familietan genero-indarkeriaren eraginpean dauden adingabeenak, bai bikotekidearen/bikotekide ohiaren aldetik indarkeria jasaten duten nerabeenak.
- 171. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen (adingabe eta emakumeen) arretan inplikaturako beste erakunde batzuekin batera eskola-eremuan antzemandako kasuak koordinatzea.
- 172. Emakume biktimen beharrezko konfidentzialtasuna bermatzen duten mekanismoak antolatzea, beren kokapena babestu behar diren (adibidea: kargura dituzten seme-alabekin batera harrera-baliabideetan dauden emakumeak, segurtasun-motiboen gatik etxebizitza aldatu duten emakumeak etab.), aitzak Hezkuntzari seme-alaben eskolatzaren eta/edo hezkuntza-prozesuaren gaineko informazioa eskatzen dion kasuetan.